



# BIZKAIKO XAKE FEDERAKUNTZA FEDERACION VIZCAINA DE AJEDREZ

Martín Barua Picaza, 27 (Kirol Etxea) 48003 BILBAO Tfno: 94 4415231  
[www.fvda.org](http://www.fvda.org) [info@fvda.org](mailto:info@fvda.org)

## ALDUNDIAREN ESKOLARTEKO XAKE LEHIAKETAREN ARAUDIA

Jarraian azaldutakoa xakera jokatzeko osagarri teknikoa da, Bizkaiko Federakuntzak Aldundiko Eskolarteko Jokoen araudia osatzeko prestatu duena.

### JOKOAREN ARAUAK

Lehiaketa honetako parte-hartzaileak oso gazteak dira FIDEn araudia ezartzeko. Beraz, beti errespetatu beharreko 3 arau aldaezin baino ez dira egongo, eta gainerako kasuak arbitroaren interpretazioaren arabera izango dira.

- Pieza ukitua, pieza mugitua (eta pieza ukitua, jandako pieza)
- Pieza askatua, utzitako pieza
- Legez kanpoko jokaldiak ez du partida galarazten

### ***JOKOAREN BESTE ARAUAK***

- **Oharra:** Hautazkoa da benjamin eta kimuetan, baina derrigorrezkoa ume eta kadeteentzat, bai Banakako Txapelketetan bai taldekakoetan, bere Faseetariko edozeinetan.
- **Erlojuaren erabilera:** Bigarren Fasean eta taldekako Lehiaketaren Amaieran, Umeen eta Kadeteen kategorian, erlojua erabiliko da eta jokalaria bakoitzari 40 minutu emango zaizkio.

### ***JOKALARIANTZAKO ARAUAK***

Jakina denez, jarraian azaldutakoa zehatz-mehatz betetzeko parte-hartzaileen adina eta Lehiaketaren garrantzia kontuan hartuko dira.

Antolakuntzak, txapelketetako fase bakoitzean irakatsi beharko ditu ondoren azaldutako arauak. Logikoa denez, Aurreko Faseko Txapelketetan malguagoak izan beharko dugu Amaierako Fasean baino.

- Jokatu baino lehen elkarri bostekoa eman behar diote.

- Ezin da berba egin partidak dirauen bitartean.
- Elkarrekin joan beharko dute arbitroari emaitza ematera (Banakako Lehiaketan)
- *Partida amaitutakoan, piezak berriro bere lekuan kokatu beharko dute.*
- Partida amaitutakoan, Joko Aretotik atera behar dute.

## **BEGIRALEENTZAKO ARAUAK**

Begirale, ordezkari edo kapitain dihardutenek hurrengo arauak jarraitu beharko dituzte:

- Aktak behar den bezala betetzea.
- *Beren jokalariei eta antolakuntzari jakinarazi beharko diete alde bietatik helduko zaien guztia.*
- Beren lekukotzaren bidez arbitroen zeregina erraztea.
- Arbitroa ordezte, hura topaketa batean egon ezin denean.
- Beren jokalariai zaintzeaz eta beraiei arreta emateaz arduratuko dira, ikastetxeak edo dagokion eremuak esleitutako guztiari dagokionez.
- Banakako Lehiaketan bere ardurapeko jokalarien interesak begiratuko dituzte (bikoteak, berdinketa-hausteak...).

(OHARRA: Lehiaketaren antolatzaileek ordezkariaren kreditazioa kendu ahal izango diote esleitu zaizkion zereginak betetzen ez dituenari.)

## **ARETOAREN ARAUAK**

Jakina denez, jarraian azaldutakoa zehatz-mehatz betetzeko parte-hartzaileen adina eta Lehiaketaren garrantzia kontuan hartuko dira.

- Jokalariai, epaileak, ordezkariai eta antolakuntzaren kideak baino ezin dira Joko Aretora sartu.
- Banakako Lehiaketarako, begiraleak ere ezin dira sartu, partida hasi denetik 5 minutu igaro direnean.

## **ARBITRATZEKO ARAUAK**

FIDEn eta Eskolarteko Lehiaketaren arauak interpretatuko ditu. Bere irizmena jokalariek, begiraleek eta antolakuntzak berak onartu beharko dute. Jokalarien arteko gatazkarik egonez gero, hurrengo prozedura jarraituko dute:

- Jokalariak epaileari deitzeko eskua altxatu beharko dute edo Lehiaketa taldekakoa izanez gero, begiraleari eskua altxatuta deituko diote eta azken honek epaileari deituko dio.
- Epailea gatazka sortu den mahaira joango da.
- Jarraian, aldeetariko bakoitzari eta, horrelakorik egotekotan, hirugarrenei, banan-banan entzungo die.
- Azkenik, behin betiko erabakia hartu eta gero, jokalariek ezin izango dute arbuiatu eta ebatzitakoa onartu beharko dute.

### ***BANAKAKO LEHIAKETAREN GARAPENA***

- Banakako txapelketan 4 lehiaketa egongo dira.
- Horiek amaitutakoan, sailkapen bat osatuko da, jokalaria bakoitzak lortutako hiru emaitza onenen puntuak batuta. Puntutan berdinduz gero, laugarren lehiaketaren datuak ere zenbatuko dira.
- Finala jokatzeko, 20 jokalaria hoberenak sailkatuko dira. Sexu bakoitzeko gutxienez 4 jokalaria ez badaude, beharrezko direnak gehituko dira.
- Bigarren urteko kimuak eta umeak Eusko Jaurlaritzak zehaztutako kopuruaren arabera sailkatuko dira.

### ***TALDEKAKO LEHIAKETAREN GARAPENA***

- Lehiaketa bat jokatu da izena eman nahi duten talde guztiekin.
- Kimuen eta umeen lehenengo 4 taldeak Bizkaiko Eskolarteko Jokoetara sailkatuko dira.
- Umeen lehenengo talde biak EAEko Txapelketara sailkatuko dira.